



EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA 2024ko deialdia

2018ko abenduaren 20an Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidarian (2018-2022) euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa deritzon ardatz estrategikoaren barruan, euskararen erabilera handitzeko estrategiak lantzea da helburuetako bat. Helburu hori betetzeko UPV/EHUn AKTIBATU programa diseinatu da.

Hori dela-eta, Euskara, Kultura, eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak deialdi hau argitaratzen du:

OINARRIAK:

1. HELBURUA

Deialdi honek, UPV/EHUko kide guztiak kontuan hartu nahi ditu, euskararen erabilera sustatzeko. Beraz, bai irakasleek, ikertzaileek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek ere egin ditzakete proposamenak deialdi honetan. Deialdiak UPV/EHUn euskararen erabilera areagotzeko askotariko ekimenak diruz laguntzea du helburu.

2. ESKARIAK EGITEKO:

Eskariak EHUEuskararen webgunearen bidez egingo dira.

Epea: Deialdia urte osoan zehar zabalik egongo da, azaroaren 10a arte.

Eskariak <https://www.ehu.eus/eu/web/.....> estekan agertzen den formularioa erabilita aurkeztuko dira. Arazorik izanez gero, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzara (euskara-sustatu.zuzendaria@ehu.eus) idatzi. Eskaera online bidali eta gero, eskaera jaso dela egiaztatzen duen mezu bat jasoko du eskatzaileak. Eskaria aurkezteko, baita ere, Erregistro Orokorrean (Leioa), campusetako erregistroetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein modutan aurkeztu ahal izango dira, helbide honetan: Euskara Sustatzeko Zuzendaritza, Sarriena auzoa z/g, Leioa-Erandio Campusa, 48940 Leioa (Bizkaia).

3. EBAZPENA

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen errektoreordetzak eskaria jaso eta hamabost egunen buruan ebatzi eta jakinaraziko dio eskatzaileari.

5. FINANTZIAZIOA

Deialdi honek egotzita daukan diru kopurua 14.000€-koa da. **Behin aurrekontua agortuta ez da diru-laguntza gehiagorik esleitu.**

Kontzeptu finantzagarriak honako hauek dira:

- Material suntsikorra (bulegoko materiala).



- Erreprografia (kartelak, posterrak,...).
- Euskaraz antolatutako jarduera akademiko zein kulturalak (bilerak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, bertso saioak, musika saioak, antzerki saioak,...).

Kontuan izan administrazio publikoko legearen arabera protokolozko gastuak (janariak, edariak, otorduak...) ez direla finantzagarriak

Laguntza jaso ahal izateko jatorrizko fakturak aurkeztu behar dira, UPV/EHUren izenean eta haren Identifikazio Fiskala daukatela (Q4818001B). **Fakturekin batera ekimenari buruzko txostena bidali behar da, beti ere abenduaren 15a baino lehen.**

Fakturak eta txostena helbide bi hauetara bidali:

euskara.erreord.proiektuak@ehu.eus

euskara.erreord.teknikaria@ehu.eus

6. INTERPRETAZIOA

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko eta garatzeko.

Leioan, 2024ko otsailaren 28an.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

M.Juncal Gutierrez Mangado